

TRISTEAK KONTSOLATZEKO MAKINA

Andolin Irakin ezagutzen ez zuen kristaurik ez zegoen Tolosan eta Tolosako inguruetan. Uzturre mendipeko baserri batean bizi zen bakar-bakarrik. Berak egosten zituen eguneroko babarrunak, berak garbitzen zituen bere galtzontzilo zikinak, berak konpontzen zituen teilatuko itoginak.

Inoren beharrik ez zuela, eta harro bizi zen Andolin Irakin. Baina bihotza oso ona zuen Andolin Irakinek, txahal txikiaren txuleta bezain samurra, Santa Maria elizako atea bezain zabala. Eta jendeari laguntzea gustatzen zitzaion. Asmatzaile trebea zen Andolin Irakin eta gauzak asmatu, ongi asmatzen zituen, gero ezertarako balio ez bazuten ere.

Behin surik gabe arrautzak frijitzeko padera asmatu zuenean bezala. Padera normal bat zen, edozein etxetako bezalakoa, baina paderaren ipurdian kaxa moduko bat zegoen. Kaxan katu bat eta sagu bat sartu zituen. Hauen korrikaren, ihesaren eta harrapatu nahiaren berotasunez frijitu nahi zituen arrautzak. Baina arrautza frijitzerako katuak sagua jan zuen, eta gero bapo etzan zen siesta ederra egitera digestioa egiteko.

Beste behin kristalezko txapela asmatu zuen, baina asmakizun horrek ere ez zuen ezertarako balio izan, eguzkiak bete-betean jotzen baitzuen kristalean eta inoiz baino gehiago berotzen zelako Andolin Irakinen kaskazuria.

Behinaren beste behinean, gurpildun zapatak asmatu zituen, baina Andolin Irakinek ez zekien patinetean ibiltzen, eta ipurdiko latzak hartu zituen; ganbaran gorde zituen gurpildun zapatak, haiekin ibiltzen ez zuela inoiz ikasiko eta.

Azken behinean, berriz, Tolosako jendea oso triste bizi zela, tolosarrek ez zutela zoriona zer zen arrasto pikorik, eta tristeak kontsolatzeko makina asmatu zuen. Ilargi beteko eta ilargi berriko gau asko eta asko pasatu zituen makina asmatzen lehendabizi eta makina egiten gero.

Halako batean, hamaika ilargi beteren ondoren hamaika ilargi berri igaro zirenean, tristeak kontsolatzeko makina bukatu zuen. Tramankulu handia zen, zapata kaxa ikaragarri baten antzekoa. Alde batean zulo bat zuen eta bestean marmita bezalako ontzi bat, eta ontziaren ipurditik tutu bat iristen zen beste aldeko zuloraino. Marmitaren parean, berriz, margo guztietako botoiak zeuden.

Uzturretik Tolosara jaitsi zen igande goiz batez, eta plazaren erdian ipini zuen tramankulua. Andolin Irakin jendeari deika hasi zen:

– *Mesedez, faborez eta arren, geldi zaitezte hemen!*

Halako batean bi mutil koskor mukizu gerturatu zitzaizkion. Batek galdetu zion:

– Zertarako da katxarro hori?

– Hau ez da katxarroa –Andolin Irakinek sua zeriela zituen begiak–, tristeak kontsolatzeko makina da. Zu ez al zaude triste, eh?, zu ez al zaude triste?

– Beno... –begiak makurtu zituen mutikoak–, bai, triste nago, bihar astelehena delako eta ikastolara joan behar dudalako. Gainera, gaur nire amak ez dit pagarik eman nota txarrak atera ditudalako, eta ezin dut goxokirik erosi.

Eta negarrez hasi zen mutikoa. Andolin Irakinek makina inguratu zion, eta marmitararen antzeko ontzia ipini begien parean. Malkoak marmitara erori ziren, gero tututik pasatu, eta azkenean era guztietako gozokiak irten ziren beste aldeko zulotik.

Pozik zegoen mutikoa. Salto ederrak eman zituen behintzat! Gozoki *tristeenak* lagunari eman eta Tolosako kaleetan zehar abiatu ziren biak Tristeak Kontsolatzeko Makinaren miraria aldarrikatuz.

Jendea inguratzen hasi zitzaion Andolin Irakini, hasieran sinesgaitz, gero eta fede gehiagoz ondoren.

– Zer gertatzen zaizu zuri? –galdetu zion Andolin Irakinek gazte mardul, ile kizkur bati.

– Niri...? Ez dakidala gaur arratsaldean Anoetara nola joan, eta futbola ikusi gabe geratuko naizela.

Negarrez hasi zen gazte mardul, ile kizkurra. Andolin Irakinek marmita ipini zion begien parean, malkoak erori ziren bertara, pasatu ziren malkoak marmitatik tutura, eta tututik zulora. Zulotik zer irtengo, eta Anoetako tribunarako sarrera bat.

Atso bat hasi zen negarrez ondoren. Zer ote zuen galdetu zion Andolin Irakinek marmita begien parean jartzen zion bitartean, eta atsoak:

– Gaur igandea dela, jende guztia dotore-dotore dabilela, eta nik ez dudala soineko ziztrin hau besterik.

Tristeak Kontsolatzeko Makinaren zulotik zer irtengo, eta zapata takoi altu txarolezko finak, galtzeta sedazkoak, bolante arinak, gona plisatuak eta hiru gabardina.

Doministiku asko egiten zuen batentzat berrogeita bat musuzapi, tripaundi batentzat tripa disimulatzeko danborra, Tolosako alkatearentzat ibaira arrosa usaineko koloniak botatzen zituzten paper fabrikak, ezer saltzen ez zuen dendari egoskor batentzat sekulako irribarre gozoa, eta beste mila milioi gauza pozgarri irten ziren Tristeak Kontsolatzeko Makina haren zulotik.

Tolosa guztia pasatu zen makinaren aurretik, eta bertan isuri tolosarrek begietan zituzten malko guztiak.

Gau hartan Andolin Irakin etxeratu zenean, pozez zoratzen zegoen tolosarrak zoriontsu egin zituelako, eta herriz herri ibiliko zela erabaki zuen euskaldunek alaitzeko premia galanta zuten eta. Eta hain poz handia zuenez, negar egin zuen zorionaren zorionez, negarraren malkoak makinaren marmitara erori ziren, marmitatik tutura, tututik zulora, eta handik zer irtengo, eta garbigailua irten zitzaion.

Harrezkero, garbigailuak egin zion gutxien atsegin zitzaion lana, eta ez zuen gehiago Andolin Irakinek galtzontzilo zikinik garbitu.

Anjel Lertxundi, *Tristeak kontsolatzeko makina*

9. Adierazi esaldi honen esanahia: “Andolin Irakin ezagutzen ez zuen kristaurik ez zegoen”.

- A. Jende guztiak ezagutzen zuen Andolin.
- B. Jende asko ezagutzen zuen Andolinek.
- C. Andolin ezezaguna zen.
- D. Andolini jendea ezagutzea gustatzen zitzaion.

10. Nolakoa da Andolin Irakin?

- A. Txikia eta asmatzailea.
- B. Bihotz onekoa eta asmatzailea.
- C. Harroa eta gaiztoa.
- D. Harroa eta zabala.

11. Lotu ezazu asmakizun bakoitza bere ezaugarri eta arazoarekin hirukoteak osatuz.

Erabili beharreko hitzak:



ASMAKIZUNAK	EZAUGARRIAK	ARAZOAK
	⇒	⇒
	⇒	⇒
	⇒	⇒

12. Zenbat askakizun agertzen dira testuan?

- A. Hiru.
- B. Lau.
- C. Bost.
- D. Bi.

13. Zenbat denbora pasatu zuen Andolin Irakinek Tristeak Kontsolatzeko Makina asmatzen eta egiten?

- A. Ilargi bete gau bat.
- B. Ilargi berri gau bat.
- C. Gau gutxi.
- D. Gau asko.

14. Zein da Andolin Irakinek jendearen interesa pizteko erabiltzen duen poema errimaduna?

.....

.....

15. *Tramankulu* hitzaren zein sinonimo agertzen da testuan?

- A. Marmita.
- B. Katxarro.
- C. Tutu.
- D. Eraikuntza.

16. Zer eskaini zion makinak Andolini?

- A. Garbigailua.
- B. Berrogeita bat musuzapi.
- C. Irribarre gozoa.
- D. Galtzontzilo garbiak.